

**2017ko URRIAREN 26an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA** **10 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2017ko urriaren 26an, iluntzeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Aitor Korta Etxabe jn. Ane Arruti Lopetegi and. Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez dira etorri	Maite Garrastazu and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2017ko IRAILAREN 28ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- 2017ko URRIAREN 5eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2017ko irailaren 25etik urriaren 20ra

Segidan, Alkateak 2017ko irailaren 25etik urriaren 20ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2017ko irailaren 25etik urriaren 16ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko irailaren 25etik urriaren 16ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

5.- INFORMAZIOA FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ:

– 2017ko 3. hiruhilekoa

Udalbatzarrak jakin berri du 2017ko hirugarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

6.- INFORMAZIOA: ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ:

– 2017ko 3. hiruhilekoa

Halaber, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 2017ko hirugarren hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

7.- LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA

2017 H 133 0001 espedientea

2017ko uztailaren 27an egindako osoko bilkuran Udalbatzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO UDAL ORDENANTZAREN aldaketari.

Espedientea jendaurrean jarri zen. Bi alegazio-idatzi aurkeztu zituzten, baina biak ala biak pertsona berak aurkeztu zituen gai berbera planteatuz. Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak alegazioei buruzko txostena egin zuen.

Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu ziren alegazioak eta udal txostena.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Ernesto Martinez Rodriguez jaunak, Emarayas SL sozietatearen izenean, aurkeztutako alegazioei erantzuna ematea, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak egindako txostenaren arabera (urriaren 3ko 0702/2017 txostena).

Horren ondorioz, adierazten da bere jabetzako lokal bat etxebizitza bihurtzeko egokia dela deklaratzeko eskaera, denbora baino lehen egin dela; ordenantza-aldaketaren tramitazioa ez da horrelako eskaerari baietza edo ezetza emateko espediente egokia. Ordenantzaren aldaketa behin betiko onartu eta arau berria indarrean sartu ondoren aztertuko da eskaera, horretarako izapidetuko den beste espediente batean.

Bigarrena.- Behin betiko onespena ematea LOKALAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO UDAL ORDENANTZAREN aldaketari. Onartu den testua hasieran onartu zen bera da.

Hirugarrena.- Ordenantza indarrean sartzeko, haren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

8.- ZARAUZKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA

2014 I 130 0002 espedientea

Administrazioarekiko Auzien Donostiako 2. Epaitegiak, 2016ko otsailaren 29ko 29/2016 epaiaren bitartez, 156/2014 prozedura arruntean Estatuko Administrazioak jarritako administrazioarekiko auzi errekurtsioa ebatzi zuen. Zarauzko Udalbatzarrak 2013ko abenduaren 18an hartutako erabaki honen aurka egin zuen errekurtsioak: "ZARAUZKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2013-2017 PLANA".

Ondoren, Euskal Herriko Justiziako Auzitegi Nagusiak 404/2016 epaia eman zuen, Donostiako Auzitegiaren epaiaren aurka Zarauzko Udalak jarri zuen 561/2016 apelazio-errekurtsioan.

Epaiak planaren artikulua batzuk baliogabetu zituen.

Hori horrela, epaian xedatutakoa betetzeko, Euskara Departamentuak proposamen bat aurkeztu du ZARAUZKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2013-2017 PLANean epai horrek baliogabetutako artikulua batzuk ordezkatzeko.

2017ko urriaren 11n egindako bileran, Herritarren arloko informazio-batzordeak aldaketa horiek aztertu zituen.

Herritarren arloko informazio-batzordeak aurkeztutako proposamena ikusita, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehen. Hasierako onespena ematea ZARAUZKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO 2013-2017 PLANeko artikulua hauen idazkera berriari:

1.1 Udalaren ahozko kanpoko harremanak Herritarrekin batera egiten diren bilerak

Ezabatu	Idazketa berria
1.- Bileran euskara ulertzeko gai ez diren herritarrak daudenean, bilera euskaraz egingo da eta gaztelerazko laburpenak egingo dira, beti ere aurkezpen-agurrak, azalpen nagusiak eta amaierako laburpena euskaraz direla.	1.- Bileran euskara ulertzeko gai ez diren herritarrak daudenean, bilera ele bietan egingo da, beti ere aurkezpen-agurrak eta amaierako laburpena euskaraz direla. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira kasu guztietan.

1.2. Udalaren ahozko barne-harremanak

Ezabatu	Idazketa berria
<u>Langile etorri berrientzako</u> protokoloa; ahozko azalpenak, euskaraz egingo dira.	<u>Langile etorri berrientzako</u> protokoloa: langile euskaldunei ahozko azalpenak, euskaraz egingo zaizkie.

2.1.1 Herritarrentzako agiriak

Ezabatu	Idazketa berria
<u>Kartelak, eskuorriak, tolesgarriak, katalogoak, gonbidapenak eta antzeko sustapen-materialean</u> euskaraz erabiliko da. Euskarazko testua lehenetsi eta nabarmendu egingo da.	<u>Kartelak, eskuorriak, tolesgarriak, katalogoak, gonbidapenak eta antzeko sustapen-materialean</u> euskarazko testua lehenetsi eta nabarmendu egingo da.

2.1.3 Finantza-erakunde eta hornitzaileekiko agiriak

Ezabatu	Idazketa berria
<p><u>Finantza-erakunde eta hornitzaileekiko harremanetan</u>, euskarazko idatziak erabiltzera joko du Udalak hartzailea euskaraz ofiziala den lurraldeetako denean; eta idatzi elebidunak egingo dira aipatu lurraldeetatik kanpokoa denean.</p> <p>Euskaraz ofiziala den lurraldeetako finantza-erakunde eta hornitzaileei gutuna bidaliko die Zarauzko Udalak euskaraz funtzionatuko duela jakinarazteko eta idatziak (merkataritzadokumentuak: fakturak, aurrekontuak/eskaintzak, emate-agiriak, gordailuak...) euskaraz edo gutxienek elebitan bidaltzeko eskatuko zaie. Elkarlanerako borondatea izanez gero, laguntza eskainiko zaie.</p> <p><u>Hornitzaileei</u> dagokienez, Udala hornitzaileekin harremanetan jartzen denean eta horniketarako eskatzeko baldintzak adosten direnean (gonbidapena, aurrekontua...), euskararen baldintza zehaztuko da.</p>	<p><u>Finantza-erakunde eta hornitzaileekiko harremanetan</u>, euskarazko idatziak erabiltzera joko du Udalak hartzailea euskaraz ofiziala den lurraldeetako denean; eta idatzi elebidunak egingo dira aipatu lurraldeetatik kanpokoa denean.</p> <p>Euskaraz ofiziala den lurraldeetako finantza-erakunde eta hornitzaileekin euskarazko harremanetan izatea bultzatuko du Udalak, bi aldeetako adostasuna landuz.</p>

2.2.3. Aginte organoeta(ra)ko dokumentazioa.

Epaia gorriz dagoena baliogabetu du	Idazketa berria, puntu osoarena
<p>– <u>Udalbatzaren osoko bilkuraren</u> aktak euskaraz jasoko dira.</p> <p>Hala ere, norbaitek gaztelaraz aurkeztutako idatzia hitzez hitz jasotzen denean, gaztelaraz jasoko da; eta Osoko Bilkurako aktan ahozko parte-hartzeak ere hitzez hitz jasotzen direnean, hitz egin den hizkuntzan jasoko dira.</p> <p>Norbaitek testu konkreturen bat gaztelaraz nahi duenean, Itzulpen Zerbitzua arduratuko da itzultzeaz.</p> <p>– <u>Akta-liburua</u> euskaraz jasoko da.</p> <p>– <u>Osoko bilkurako dokumentazioa</u> euskaraz sortuko da (deialdiak eta beste).</p> <p>– <u>Tokiko Gobernu Batzarreko</u> aktak euskaraz jasoko dira.</p>	<p>Toki-erakundeetako organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki-proposamenak, informazio-batzordeen irizpenak, erabakiak eta aktak euskaraz idatziko dira.</p> <p>Zinegotziren batek aginte organoetako eta gainontzeko bileretako aktak edo dokumentazioa gaztelaraz izan nahi badu itzulpen zerbitzua arduratuko da itzulpenaz.</p> <p>Ebazpenak, aktak eta erabakiak euskaraz idatzen direnean, euskaraz bidaliko zaizkie kopiak edo laburpenak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari eta Estatukoari, toki-araubideari buruzko oinarriko legeriari jarraituz.</p> <p>(Euskadiko Toki Erakundeei Buruzko Legea: 6.2 artikulua)</p>

<ul style="list-style-type: none"> - <u>Tokiko Gobernu Batzarreko</u> dokumentazioa euskaraz sortuko da (deialdiak eta beste). - <u>Informazio-batzordeetako</u> aktak euskaraz jasoko dira. - <u>Akordio proposamenak</u> euskaraz sortuko dira. - <u>Alkatearen ebazpen eta dekretuak</u> euskaraz sortuko dira. - <u>Zinegotzi ordezkarien ebazpenak, alkateak emandako eskuordetzearen bitartez erabakitakoak</u> euskaraz sortuko dira. - <u>Gainontzeko bileretako deialdiak eta aktak, aurkezpen-materiala eta txostenak</u> ere euskaraz sortuko dira. <p>Zinegotziren batek aginte organoetako eta gainontzeko bileretako aktak edo dokumentazioa gazteleraz izan nahi badu itzulpen zerbitzua arduratuko da itzulpenaz.</p>	
---	--

9.- DIRU-LAGUNTZAK HERRIKO ELKARTE, TALDE ETA ERAGILEENTZAT

Ezabatu	Idazketa berria
<p>Udalak eta bere erakunde autonomoek, diru-laguntzak emateko baldintzen artean jasoko dute euskararen tratamenduari buruzkoa, beti ere diruz lagundutako egitasmoan hizkuntzaren erabilerak eragina duenean.</p> <p>Gizarte zerbitzuetakoak ez diren beste diru-laguntzak esleitzerakoan –kultur, kirol eta aisialdi mailakoak batik bat–, Udalak kontuan izango du eskatzaileak bai eskaera egiteko garaian bai zerbitzua ematean hizkuntzaren zein erabilera egiten duen eta, zehazkiago, ondorengoa eskatuko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Diru-laguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz izateko saiakera egitea (kontuan izanda, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak gaztelaniaz egiteko eskubidea aitortzen diela). - Diru-laguntzaren xede den ekintzan euskara erabiliko dela bermatzea. Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatuko balitz eta hizlaria euskalduna ez balitz, laguntzaile euskaldun bat behintzat egotea, euskaldunen hizkuntza eskubideak ere errespetatu daitezten. - Diruz lagundutako ekintzetan argitaratzen 	<p>Udalak eta bere erakunde autonomoek, diru-laguntzak emateko baldintzen artean jasoko dute euskararen tratamenduari buruzkoa, beti ere diruz lagundutako egitasmoan hizkuntzaren erabilerak eragina duenean. Eta zehazki, ondorengoa eskatuko da:</p> <p>a.- 18 urtez azpiko haur, nerabe eta gazteentzat berariaz antolatutako jardueretan euskararen erabilera bereziki bermatuko da arlo guztietan, hedapenean eta jarduera bera gauzatzeko ere bai.</p> <p>b.- Mezu idatziei dagokienez (kartel, esku-orri, prentsa-iragarki, sarrera-txartel eta gonbidapen, liburuxka, gutun, deialdi, ohar eta gisakoak), diruz lagundutako jarduera euskaraz egiten bada, euskaraz idatzi eta ezagutaraziko dira; bestela, bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz). Elebitan egiten diren kasuan, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa gaztelerazkoaren gainean) bai neurriaren aldetik. Euskarazko testuak zuzen idatzita daudela egiaztatzeko, diru-laguntza jasoko duen erakundeak Udaleko Euskara Zerbitzura jo ahal izango du. Irizpide honetatik kanpo geratuko liriteke, jatorriz, euskaraz ez diren liburu, aldizkari etab. beti ere beren itzulpena ekimenaren baliabide eta helburuetatik kanpo baleude.</p> <p>c.- Ahozko komunikazioetan (aurkezleak, hizlariak, irakasle/monitoreak, bozgorailuetako mezuak,</p>

<p>diren esku-orriak, kartelak, iragarkiak, oharrak eta gainerakoak, ahozkoak zein idatzizkoak gutxienez elebitan egotea eta, kasu horretan, euskarari lehentasuna ematea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jardueraren hedapen-lana eta jarduera bera euskaraz gauzaten dituzten elkarteak diruz-sarituko ditu Udalak (elebitasunaren alde egin duten elkarten parean). - Diru-laguntza eskuratu ahal izateko, <u>18 urtetik beherako haur eta gazteei bereziki zuzendutako ekintzek</u> euskaraz izan beharko dute. - Ezarritako hizkuntza-irizpideak (elebitasuna bermatzea) bete ezean, ez da diru-laguntzarik emango. 	<p>irratietakoak, jarritako musika...) euskara edo bi hizkuntza ofizialak (euskaraz eta gaztelaniaz) erabiliko dira. Biak erabili behar izanez gero, euskarari emango zaio lehentasuna. Hori bermatu ahal izateko, diru-laguntza jasoko duen erakundeak Udaleko Euskara Departamentura jo ahal izango du. Irizpide honetatik kanpo geratuko dira, jatorriz, euskaldun ez diren hizlari, mahaikide eta antzerakoak, beren solasgaiak edo jatorriak hala eskatuko balu.</p> <p>d.- Diru-laguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubidea bazter utzi gabe.</p> <p style="text-align: right;"><i>(Udalbatzarrak 2015eko otsailaren 25ean egindako osoko bilkuran hartutako erabakia)</i></p>
---	--

10. - KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOAK

Ezabatu	Idazketa berria
<p>Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak udalak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak bermatzeko helburua izango dute: oro har, hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea bete araziko da, baina, Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek hala eskatzen badute, hainbat kontratu euskaraz gauzatzeko neurriak ezarriko dira (berezko ezaugarriak hauek izan daitezke: zerbitzuaren jardueraren gaia; xede taldea; Administrazioaren hizkuntza-araudia, Zuzenbide araudiarekin bat datorrena).</p> <p>Hizkuntza baldintzak kontratazio modu eta mota guztietan jasoko dira: kontratu irekietan, prozedura negoziatuetan eta kontratu txikietan, bai obra kontratuetan, herri-lanen emakidetan, zerbitzu-kontratuetan, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan eta hornidura kontratuetan. Halaber, baldintza agiri guztietan; karatulan, baldintza agiri administratiboetan eta teknikoetan.</p> <p>Edozein kontratazio egin aurretik eta ondoren, ziurtatu egin beharko da delako enpresa edo norbanakoa gai dela eman behar duen zerbitzua euskaraz emateko..</p>	<p>Herritarren hizkuntza-eskubideei eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeari dagokien ezarriak gertatu ez dadin indarreko legeriak onartzen dituen zehar-kudeaketa moduetako baten bitartez zerbitzua emateagatik, toki-erakundeek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, hirugarren batzuek egikaritzen dituzten zerbitzu publikoetan helburu hauek bermatze aldera:</p> <ol style="list-style-type: none"> a) Kontratuaren xedeak bete dezala bere izaeragatik eta zerbitzuaren titularra den toki-erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria. b) Herritarrak artatuak izan daitezela berek hautatzen duten hizkuntza ofizialean c) Zerbitzua eman dadila, hizkuntza-baldintzei dagokien, zerbitzuaren administrazio titularrari exijitu ahal zaizkion baldintza beretan. <p style="text-align: right;"><i>(Euskadiko Toki Erakundeek Buruzko Legea: 7.8 artikulua)</i></p>

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, planaren aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, beste erabaki bat hartu beharrik gabe. Dena den,

indarrean sartzeko, aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

9.- UDAL BITARTEKO FUNTZIONARIO BATI BATERAGARRITASUNA ONARTZEA

2017 I 399 0043 espedientea

Enara Mendizabal arkitektoak bateragarritasuna eskatu du irakasle elkartu modura lan egiteko, astean 6 ordutan, Euskal Herriko Unibertsitatean.

2016ko azaroaren 24an egindako osoko bilkuran Udalbatzarrak Mendizabal andreari bateragarritasuna onartu zion, orain eskatzen dituen baldintza berdinetan. 2017ko urritik abendura bitartean lanaldi osoko izendapena egin bazaio ere, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera bere jatorrizko lanaldira itzuliko da, lanaldi erdira, alegia.

Arkitekto lanpostuaren ordainsari gordina hilero 1722 eurokoa da (antzinatasuna barne eta % 50ean). Horrez gain, aipatutako Unibertsitateak bidalitako informazioaren arabera, han egingo lukeen lanagatik hilero guztira 727,00 euroko soldata jasoko luke, aparteko ordainsaria jasotzeko eskubiderik gabe. Esan beharra dago Unibertsitateak berak bateragarritasunaren aldeko txostena helarazi diola Zarauzko Udalari, 2017ko urriaren 2an.

Kasu honi 53/1984 Legea zaio aplikagarri, abenduaren 25ekoa, Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzkoa. Giza baliabideetako arduradunak txostena egin du, eta Mendizabal andreari bateragarritasuna ematea posible dela ondorioztatu du.

Izan ere, bi lanpostuen ordainsariak ez dituzte gehienezko ordainsariak gainditzen, eta, bestalde, alor publikoan bigarren lanpostu bat betetzeko debekuari salbuespena egiten dio 4.1. artikulua, modu honetan: *“Podrá autorizarse la compatibilidad, cumplidas las restantes exigencias de esta ley, para el desempeño de un puesto de trabajo en la esfera docente como Profesor universitario asociado en régimen de dedicación no superior a la de tiempo parcial (...) (598/1985 Errege Dekretuaren arabera astean gehienez ere 30 ordu) y con duración determinada (...)”*.

Halaber, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuko Administrazio orokorreko teknikari (AOT) arduradunak adierazi du, txosten baten bitartez, Mendizabal andrearen eskaera onartzeak ez duela zerbitzuko funtzionamendua oztopatuko eta bateragarritasuna ematearen aldekoa dela.

Hortaz, aurrekoa kontuan hartuta eta Antolakuntzako informazio-batzordeak aurrez irizpena egin ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Enara Mendizabal Sanper andreari bateragarritasuna onartzea,

eskatutako baldintzetan, irakasle elkartu modura lan egin dezan Euskal Herriko Unibertsitatean.

Bigarrena.- Erabaki hau interesdunari zein Euskal Herriko Unibertsitateari jakinaraztea.

10.- ZINEGOTZI BATEN DEDIKAZIOA ALDATZEA

2015 O 020 0002 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri eta udal taldeek beren jarrera azaldu ondoren, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	10	(8 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	—	
Abstentzioak:	6	(4 EH Bildu, , 2 Irabazi Zarautz)

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

2015eko uztailaren 16an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak finkatu zituen, agintaldi berrirako, bai dedikazioak eta beren ordainsariak, bai zinegotzientzako eta udal taldeentzako dirusariak. Gerora, horietako batzuk aldatu ditu.

Orain, PSE-EE udal taldeak zinegotzi bozeramailearen dedikazioa aldatzeko proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

GLORIA VAZQUEZ HERRANZ zinegotziaren dedikazioa aldatzea: % 100ekoa izango da, ordainsariak aldatu gabe.

11.- ZARAUZKO ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAN INSKRIBATZEA ETA UDAL INTERESEKO ADIERAZPENA

— Asociación de Ayuda en Carretera de Gipuzkoa (DYA)

2017 I 161 0001 espedientea

Eli Ramirez Rodriguez andreak eskatu du ASOCIACIÓN DE AYUDA EN CARRETERA DE GIPUZKOA (DYA) elkartearen Udala Erregistroan inskribatzea. Horretarako behar den dokumentazio guztia aurkeztu du.

Gainera, udal intereseko elkartearen adierazpena ere eskatu du, eta horretarako beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu du. Bestek beste, zerbitzu eta jardueren memoria ere sartu du, udal intereskoa dela frogatzeko.

Gizarte Zerbitzuen departamentuak txostena egin du. Bertan egiaztatu du jarritako betebeharrak betetzen dituela eta udal intereseko elkartetzat hartzeko baldintza zehatzak ere betetzen dituela.

Zarauzko Elkartearen Udal Erregistroaren Erregelamendu Arautzailean aurreikusitakoarekin bat etorriz (2017ko urtarrilaren 12ko GAO, 8 zk.) eta urriaren hamaikako Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrek aho batez,

ERABAKI DU

Lehen.- ASOCIACIÓN DE AYUDA EN CARRETERA DE GIPUZKOA (DYA) elkarte, Elkartearen Udal Erregistroan inskribatzea. Datu hauekin emango zaio alta elkarteari, eta akordio honen egunetik aurrera izango ditu ondorio guztiak:

Presidentea:	Jon Cencillo García	NAN	72469353-K
Idazkaria:	Maialen Carrión Esteban	NAN	72515663-K
Diruzaina:	Miren Iruretagoiena Amiliabia	NAN	72514224-P
Helbide soziala:	Medigain kalea 30. 20014 Donostia.		

Bigarrena.- Elkartearen udal interesekoa dela adieraztea, Zarauzko Elkartearen Udal Erregistroaren Erregelamendu Arautzailearen bederatzigarren artikuluan aurreikusitako ondorio guztiekin.

Hirugarrena.- Erakunde interesdunari eabazpen hau jakinaraztea. Erregistroan inskribatutako datuak helaraziko zaizkio, eta adieraziko zaio datu horietan edozein aldaketa gertatzen bada Udalarari derrigorrez jakinarazi behar dizkiola, aldaketa egin eta hurrengo hilabetean.

12.- ESKARI-GALDERAK

Ez du inork hitz egin

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, iluntzeko zazpiak eta hogeita bostean, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.